

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Mugu-ko (Nepal) haurren futbol-talde femeninoa Iruñean da

*Herritarrekiko eta Instituzioekiko Harremanetarako kontseilaria den Ana Ollok harrera egin die Nafarroako Jauregian*

Ostirala, 2018.eko uztailak 6

Mugu-ko (Nepal) haurren futbol-talde femeninoko kideak bisitan dira Iruñean, SOS Himalaya - Inaki Ochoa de Olza Fundazioa Elkarteak gonbidatuta. Taldea honako hauek osatzen dute: jokalariek, 12 eta 14 urte arteko 22 neskek, taldeko 2 teknikariek, gida batek eta "SOS Himalaya" GKEko arduradunek. Taldeari harrera egin dio Ana Ollok, Herritarrekiko eta Instituzioekiko Harremanetarako kontseilaria, Tronu Aretoan.



Ana Ollok kontseilariak haurren futbol-talde femeninoko jokalariekin

Herritarrekiko eta Instituzioekiko Harremanetarako kontseilariak, Tronu

Kontseilariak hitz batzuk eskaini dizkie taldea osatzen duten neskatilei eta pertsoneri, eta, futbolaren bitartez, tradizionalki patriarkala den gizartea aldatzeko duten borondate handia nabarmendu du; halaber, esan du "erreferente bihurtzeko gai direla eta emakumea haien eremutik ikusgai egiteko gai, mugak gaindituaz, gizarteak oro har eta gazteriak bereziki, estereotipoak eta diskriminaziozko jarrerak gainditu ditzan".

Era berean, azpimarratu du kirola garrantzitsua dela generoaren berdintasunerako bidean aldaketa-motor gisa, kirola praktikatzek "konfiantza irabazten laguntzen baitu, eta konfiantzak beste era bateko eragozpenak gainditzen ere laguntzen du. Kirola espazio seguruekin eta bizimodurako ikasteko aukerekin konbinatzen bada, neskek ahalduntzeaz gain, haien autonomia bultzatzen da".

Futbol-talde hau Mugu-koa da, herrialdeko zonarrik behartsu eta urrunenekoa. Gaur egun, ospetsuak dira Bhojraj Bhat-i esker; hau da, Nepalgo kazetari gaztea, haiei buruzko dokumentala ("Sunakali") egin eta munduari bira ematen ari dena. Neskatxak futboleko jokatzeko agertzen dira 4.000 m-ra eta elurretan muturreko baldintzatan. Egun hauetan zehar, haurren futboleko Donosti Cup-ean parte hartzen ari dira, gonbidatu gisa.

Lanak mugak gainditu ditu, antzinatek paternalista den gizartean genero-berdintasunaren aldeko mezua zabalduaz eta neskatxek eta gazteek genero-barreraz haratago dauden erronkak gainditu ditzaketela erakutsiaz.

Horrez gain, Ana Ollok eskerrak eman ditu SOS Himalaya azken urteetan Nepalen egiten ari den lan eskuzabal eta solidarioarengatik; GKEn helburu nagusia da Makalu-ko Ospitalea eraikitzea, osasun-sistematik ez duten zonan.